# HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK | *ESTABLECIMIENTOS HOTELEROS*

## BIZKAIA

**Sarreren bilakaera esparru geografikoka. 2001-2005. Bizkaia**

***Evolución de las entradas según zonas geográficas. 2001-2005. Bizkaia***




Urteko aldaketa-tasa 2004-2005 / *Tasa de variación 2004-2005*




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

*2005ean Bizkaia izan da lurralderik dinamikoena, sarrera-kopurua % 9 hobetu delarik (808.000). Zonaren arabera, bereziki azpimarragarriak dira barrualdean eta kostaldean erakutsitako portaera bikainak (+% 18 eta +% 13 hurrenez hurren).*

*Bizkaia es el territorio más dinámico en 2005 con una mejora del +9% de las entradas (808.000). Por zonas destaca el buen comportamiento del interior (+18%) y del litoral (+13%).*

Bizkaian zabaldu egin da, oraingoan ere, hotelen eskaintza. 2005ean 218.236 plaza sortu dira (598 plaza/egunean), hau da, % 7 plaza gehiago eskaini dira. Horien artetik % 51 barrualdean daude (+% 15), % 16 kostaldean (+% 10) eta gainerako % 33 hiriburuan (+% 3,6). Hiriburuan hazkunde-erritmoa moteldu egin da, 2003koarekin (+% 8) eta 2004koarekin (+% 9) alderatuz.

Dinamismo horrekin batera, sarrera-kopuruak hobera egin du (+% 9) esparru geografiko guztietan. Gora egin du, halaber, gau-kopuruak (+% 7,7).

*Bizkaia continúa con su expansión de la oferta hotelera. En 2005, se han creado 218.236 plazas (598 plazas/día) que representan un aumento del +7%. De éstas, el 51% están en el interior (+15%), el 16% en el litoral (+10%) y el 33% restante en la capital (+3,6%) que ralentiza su ritmo respecto a 2003 (+8%) y 2004 (+9%).*

*Este dinamismo se ve correspondido por un crecimiento de las entradas (+9%) compartido por todas las zonas geográficas y extensivo también a las pernoctaciones (+7,7%).*

**Igarotako gauen bilakaera esparru geografikoka. 2001-2005. Bizkaia**

***Evolución de las pernoctaciones según zonas geográficas. 2001-2005. Bizkaia***




Urteko aldaketa-tasa 2004-2005 / *Tasa de variación 2004-2005*




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

**Igarotako gauen hileko bilakaera esparru geografikoka. 2003-04-05. Bizkaia**

***Evolución mensual de las pernoctaciones según zonas geográficas. 2003-04-05. Bizkaia***




Iturria / *Fuente:* Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta. / *Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

Bigarren hiruhilekoan (Aste Santurik ez) emaitzek behera egin badute ere, gau-kopuruak gora egin du, hain zuzen +% 8tik (05-IV) udako +% 12ra. Dena den, emaitzak aldatu egiten dira hilabete batetik bestera.

Hiriburuan, oporraldiak dituzten hilabeteetan lortu dira hazkunderik handienak –abendua (+% 24), abuztua (+% 19), martxoa eta uztaila (+% 17)– eta apirila, maiatza eta ekainean, bai eta irailean eta urrian ere, emaitzek okerrera egin dute.

Barrualdean ere udan lortu da hazkunderik nabarmenena (+% 40 uztailean eta +% 23 abuztuan). Halaber, portaera bikaina erakutsi dute urriak eta azaroak (+% 26 bakoitzak).

Amaitzeko, kostaldea da udan hazkunderik txikiena lortu duen esparrua (%10 inguruko hobekuntzak). Bereziki azpimarragarriak dira martxoa (+% 67) eta azaroa (+ % 41).

*Exceptuando un segundo trimestre a la baja (sin Semana Santa), en el resto, las pernoctaciones crecieron desde un +8% (IV-05) a un +12% en verano. Pero por meses se observan diferencias entre zonas.*

*En la capital, los meses con períodos vacacionales como son Diciembre (+24%), Agosto (+19%), Marzo y Julio (+17%) han sido los que más han crecido mientras retroceden Abril, Mayo y Junio así como también Septiembre y Octubre.*

*El interior sigue también el patrón de expansión veraniega (+40% en Julio y +23% en Agosto) al que se añade el buen comportamiento de Octubre y Noviembre (+26% cada).*

*Finalmente, en el litoral, el verano ha sido menos expansivo que en el resto de zonas con mejoras del 10%. En este ámbito destacan Marzo (+67%) y Noviembre (+41%).*

*Milioi eta erdi gau inguru erregistratu dira (+% 7,7), eta horietatik % 69 Bilbon egin dira; bilakaerari erreparatuz, kostaldean (+% 10) barrualdean baino (+% 12) neurritsuagoa izan da lortutako hazkundea.*

*Se han registrado casi millón y medio de pernoctaciones (+7,7%) de las cuales el 69% se han realizado en Bilbao; en términos de evolución crece menos que el litoral (+10%) y el interior (+12%).*

**Igarotako gauen banaketa esparru geografikoka. 2005. Bizkaia**

***Distribución de las pernoctaciones según zonas geográficas. 2005. Bizkaia***




Iturria/*Fuente:* Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta / *Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

### Igarotako gauen bilakaera jatorriaren arabera. 2001-2005. Bizkaia

### *Evolución de las pernoctaciones según procedencia. 2001-2005. Bizkaia*




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

### Igarotako gauen urteko aldaketa-tasa jatorriaren arabera. 2004-2005. Bizkaia eta esparru geografikoak

### *Tasa de variación anual de las pernoctaciones según procedencia. 2004-2005. Bizkaia y zonas geográficas*




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

Bezeroen jatorriari erreparatuz, barrualdeko gutxiengoen turismoak lortu du hazkunderik handiena (+% 11); Estatuko turismoak (% 54) eta turismo atzerritarrak (% 33), berriz, % 7ko hazkundea ezagutu dute, orain arteko emaitzak errepikatuz.

05-I aldian (Aste Santua) eta 05-III aldian (uda) erregistratu ditu Estatuko turismoak aldaketa-tasarik altuenak. Turismo atzerritarrak, bestalde, urtearen bigarren erditik aurrera erregistratu ditu tasarik altuenak, batez ere 05-IV aldian (+% 22).

Hiriburuan nabarmenagoa izan da euskal turismoak ezagutu duen hazkundea (+% 13); bien bitartean, Estatuko turismoak % 6ko hazkundea ezagutu du (+% 27 abuztuan).

*Por procedencia del cliente, el minoritario turismo interior (13%) ha sido el más expansivo (+11%) mientras el estatal (54%) y el extranjero (33%) han crecido cada uno un +7% y mantienen su peso en el conjunto.*

*Las máximas tasas de variación del turismo estatal y vasco se han producido en I-05 (Semana Santa) y III-05 (verano) mientras el extranjero lo ha hecho en la segunda mitad del año, especialmente en IV-05 (+22%).*

*En la capital, crece más el turismo vasco (+13%) mientras el estatal mejora un +6% (+27% en Agosto).*

### Igarotako gauen banaketa jatorriaren arabera. 2005. Bizkaia

### *Distribución de las pernoctaciones según procedencia. 2005. Bizkaia*




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta / *Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

### Igarotako gauen bilakaera esparru jatorriaren arabera. 2003-04-05. Bilbo

### *Evolución de las pernoctaciones según procedencia. 2003-04-05. Bilbao*




Iturria / *Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta. / *Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

**Igarotako gauen hileko bilakaera jatorriaren arabera. 2003-04-05. Bizkaia barrualdea**

***Evolución mensual de las pernoctaciones según procedencia. 2003-04-05. Bizkaia interior***




Iturria / *Fuente:* Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta. / *Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

Jatorriaren arabera, madrildarrak eta katalanak dira, oraingoan ere, bezero nagusiak (% 17 eta % 11 hurrenez hurren); lehenengoen kasuan, % 2 gutxiago izan dira eta bigarrenen kasuan, beste autonomia-erkidegoetan baino hazkunde geldoagoa izan dute. Ildo horretan, Gaztela eta Leon, Valentziako Erkidegoa eta Galiziak % 3 inguruko pisua dute eta % 10etik gorako indizeak erregistratu dituzte.

Atzerritarren artetik behera egin du bezero nagusiaren portzentajeak (Erresuma Batua, -% 23), baina gainerako guztiek emaitzak hobetu dituzte. Bereziki azpimarragarriak dira frantsesak (+% 26) eta alemanak (+% 20).

*Atendiendo a la procedencia concreta se han mantenido los madrileños y catalanes como primeros clientes (suponen un 17% y un 11%); los primeros retroceden un -2% y los segundos crecen a un ritmo más lento que el de otras CC.AA. que con un peso actual en torno al 3% tienen índices superiores al 10%. Son Castilla y León, Comunidad Valenciana y Galicia.*

*De los extranjeros, desciende el primer cliente (Reino Unido, -23%) pero crecen prácticamente el resto. A destacar los franceses (+26%) y los alemanes (+20%).*

*Uztailean eta abuztuan hazkunde handia ezagutu du turismo atzerritarrak barrualdean (+% 57 eta +% 42 hurrenez hurren), eta kostaldearen kasuan, irailean izan da hazkunderik nabarmenena (+% 41). Hiriburuan erregistratutako hazkundea ere azpimarragarria da (+% 63 abenduan).*

*Importante aumento del turismo extranjero en el interior durante Julio y Agosto (+57% y + 42%) y en el litoral, en Septiembre (+41%). Después se dirige más a la capital (+63% en Diciembre).*

**Igarotako gauen hileko bilakaera jatorriaren arabera. 2003-04-05. Bizkaia kostaldea**

***Evolución de las pernoctaciones según procedencia. 2003-04-05. Bizkaia litoral***




Iturria / *Fuente:* Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta. / *Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

**Betetze-mailaren bilakaera. 2001-2005. Euskadi, Bizkaia eta esparru geografikoak**

***Evolución del grado de ocupación. 2001-2005. Euskadi, Bizkaia y zonas geográficas***




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

Urte amaieran % 45,74koa izan da betetze-maila. 2004ko indizea sendotzeaz gain, +% 0,5 hobetzea lortu da, plaza-kopurua ugaritu bada ere (+% 7).

Bilbon erregistratu da urteko betetze-mailarik altuena (% 50) –+% 2 hobetu dira emaitzak– eta barrualdean, aitzitik, baxuena (% 38). Kasu honetan, gau-kopuruak lortutako hobekuntza (+% 10) ez da nahikoa izan plaza-kopuruak izandako hobekuntza (+% 15) orekatzeko eta betetze-mailak % 2ko beherakada ezagutu du 2004ko tasarekiko.

Kostaldean % 40koa izan da betetze-maila eta ez da indizea aldatu.

*El año se cierra con una ocupación del 45,74% de las plazas que consolida el índice de 2004 y lo mejora en un +0,5% a pesar del aumento que ha habido de plazas (+7%).*

*La ocupación anual más alta corresponde a Bilbao (50%) –que mejora un +2%– y la más baja al interior (38%). En este caso el incremento registrado en las pernoctaciones (+10%) no compensa el incremento del +15% de las plazas y la ocupación desciende un -2% respecto a 2004.*

*En el litoral, la ocupación queda establecida en un 40% y el índice se mantiene.*

*05-III aldian (uda) lortutako betetze-maila erabakigarria izan da urteko emaitzari dagokionez. Bereziki azpimarragarriak dira uztaila (% 53) eta abuztua (% 72), 2004ko emaitzekiko 7 eta 8 puntuko aldea erregistratu delarik hurrenez hurren.*

*La ocupación alcanzada en III-05 (verano) ha sido determinante para el resultado anual. Destacan Julio (53%) y Agosto (72%) con ventajas de casi 7 y 8 puntos porcentuales respecto a 2004.*

**Betetze-mailaren hileko bilakaera. 2003-04-05. Bizkaia**

***Evolución mensual del grado de ocupación. 2003-04-05. Bizkaia***




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

*Bilbok abuztuan (% 76), irailean (% 58) eta uztailean (% 56) lortu ditu emaitzarik bikainenak eta uda igarotzeko hiri gisa sendotu da.*

*Bilbao obtiene sus mejores resultados en Agosto (76%), Septiembre (58%) y Julio (56%) y se revela como una ciudad también para el verano.*

**Betetze-mailaren hileko bilakaera. 2003-04-05. Bilbao**

***Evolución mensual del grado de ocupación. 2003-04-05. Bilbao***




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

2004ko emaitzak aintzat hartuta, Bilbok martxoan eta udan emaitzak hobetzea lortu du eta abuztuan erregistratu da Bizkaiko betetze-mailarik altuena (% 76).

Bilbok gero eta indar handiagoa du udako oporretarako hiri gisa; 2001ean erregistratutako urteko gau-kopurutik % 9 Bilbon egin ziren; 2005ean, berriz, ia 132.000 gau egin dira Bilbon, eta % 13ko portzentajea lortu da.

Barrualdean ere hobera egin da udan eta 9 eta 5 portzentaje-puntuko hobekuntzak lortu dira uztailean eta abuztuan hurrenez hurren. Kostaldean, aitzitik, atzera egin da.

*Bilbao consigue mejorar los resultados de 2004 en Marzo y en verano, consiguiendo en Agosto (76%) la ocupación más elevada de Bizkaia.*

*Esta condición estival de la capital se pone también de manifiesto al comprobar que, en 2001, Agosto representaba el 9% de las pernoctaciones anuales de Bilbao mientras en 2005, las casi 132.000 registradas, suponen el 13%.*

*También el interior participa de este dinamismo veraniego, con mejoras de 9 y 5 puntos porcentuales en Julio y Agosto, que choca con el ligero retroceso del litoral.*

**Betetze-mailaren hileko bilakaera. 2003-04-05. Bizkaia kostaldea**

***Evolución mensual del grado de ocupación. 2003-04-05. Bizkaia litoral***




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

*Bizkaiko kostaldean emaitza irregularrak lortu dira. Udan ez da ez atzera ez aurrera egin eta barrualdean otsailean eta azaroan aurreko urteko emaitzak hobetu dira. Barrualdean, berriz, oporren garaian bakarrik lortu da emaitzak hobetzea.*

*Año irregular para el litoral vizcaíno que combina el estancamiento de los meses de verano con mejoras en Febrero y Noviembre. El interior, sólo crece en los períodos vacacionales.*

**Betetze-mailaren hileko bilakaera. 2003-04-05. Bizkaia barrualdea**

***Evolución mensual del grado de ocupación. 2003-04-05 Bizkaia interior***




Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

**Batez besteko egonaldiaren bilakaera. 2001-2005. Euskadi, Bizkaia eta esparru geografikoak**

***Evolución de la estancia media. 2001-2005. Euskadi, Bizkaia y zonas geográficas***







Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*

Bizkaia bere osotasunean hartuta, 1,86 egunekoa izan da batez besteko egonaldia. Bosturteko osoan lortutako batez bestekorik baxuena da eta Euskadiko batez bestekotik behera geratu da (1,90 egun).

Esparru geografikoka antzeko emaitzak lortu dira. Edozein modutan, batez besteko egonaldia zertxobait hobetzea lortu da kostaldean (1,88 egun), eta barrualdean, aitzitik, laburragoa izan da batez besteko egonaldia (1,84 egun). Bi kasuetan 2004ko emaitzekiko behera egin da (1,92 eta 1,94 egun).

Hiriburuko batez besteko egonaldia bat dator Bizkaian erregistratutakoarekin (1,86 egun) eta ez da aldaketarik gertatu aurreko urteko emaitzekiko.

*La estancia media para el conjunto de Bizkaia es de 1,86 días. Supone el promedio más bajo del quinquenio e inferior también al general de Euskadi (1,90 días).*

*Los resultados por zonas geográficas son muy similares. Con todo, se aprecia un ligero incremento respecto al promedio, de la estancia media en el litoral (1,88 días) y un acortamiento en el interior (1,84 días). En ambos casos supone una disminución respecto a la obtenida en 2004 (1,92 y 1,94 días).*

*La estancia media en la capital coincide con el promedio de Bizkaia (1,86 días) y se mantiene invariable respecto al ejercicio anterior.*

*Atzerritarrek egin dute batez besteko egonaldirik luzeena (2,03 egun). Batez bestekoa 1,85 egunekoa da Estatuko turisten kasuan (1,90 2004an) eta 1,56 egunekoa euskaldunen kasuan.*

*La estancia media más larga corresponde a los extranjeros, 2,03 días. El promedio desciende a 1,85 días en el caso de los turistas estatales (1,90 en 2004) y a 1,56 entre los vascos.*

**Batez besteko egonaldia jatorriaren arabera. 2005. Bizkaia eta esparru geografikoak**

***Estancia media según procedencia. 2005. Bizkaia y zonas geográficas***







Iturria/*Fuente*: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta./*Encuesta de Establecimientos Turísticos Receptores.*